

# Herri Aldizkaria

# Otamotz

2000ko apirila 56. alea



QUEMALIBOEN  
**ZINTZU  
MINTZU**  
ELKARRITZA


## Joxe Urteaga

## Zumarragako trikitixaren hauspoa

IRITZIZ-IRITZI: ARAITZ PADRÓN

TTIPI-TTAPAREN ESKUTIK, EUSKARAREN ALDEKO HAINBAT EKINTZA HILABETE HONETAN  
ELKARRIZKETA: XABIER GABILONDO, LEHENDAKARIORDEAREN PRENTSA ARDURADUNA

# OPEL



# ZAFIRA



Flex 7 sistemari esker, eserlekuak 39 modu ezberdinetan kokatu daitezke modu errezean, segundu gutxitan eta eserlekuak desmontatu beharrik gabe.  
3. ilarako eserlekuak tolestu eta zoluaren mailan ezkutatu daitezke.  
Erdiko ilarako eserlekuak aurrera eraman daitezke.  
Alboetako eserlekuak tolestu egin daitezke tresna luzeak autoan garraioitzeko.

Motor hauek daude eskuragarri: 1.6 16V eta 1.8 16V gasolinazkoak eta 2.0 DI 16V diesela.  
Bukaera mailak: Comfort eta Elegance.



OPEL

## Altamira tailerrak Goierriko zerbitzu ofiziala

Matxinporta 4, Urretxu

☎ 943 72 33 71



1962ko ekainean Zumarragako monjen eskolan ateratako argazkia. Ezkerretik eskubira eta goitik behera:

1. **ilaran:** M<sup>a</sup> Angeles Agirrezabal, M<sup>a</sup> Angeles Amilleta, M<sup>a</sup> Carmen Sáenz, M<sup>a</sup> Victoria Aranguren, Arantza Antia, Esther Gutiérrez, Paloma Sánchez.
2. **ilaran:** Maite Aizpuru, M<sup>a</sup> Carmen Urretabizkaia, M<sup>a</sup> Josefa Aizkibel, Arantza Aleman, Elisa Gabilondo, Maite Pérez, Sor Lucía Inés, Aurori García, M<sup>a</sup> Pilar Romano, M<sup>a</sup> Dolores Arizmendi, Maite Basabe, M<sup>a</sup> Pilar Guridi.
3. **ilaran:** Kontxi San Vicente, Celia Alvarez, Maite García, Amaia Berasategi, Itziar Kerejeta, ?, Mila Lasa, M<sup>a</sup> Isabel Zangitu, M<sup>a</sup> Rosario Fariñas, Gemma Gorrotxategi, M<sup>a</sup> José Telleria, Mertxe Zabalo, M<sup>a</sup> Rosario Otaegi.
4. **ilaran:** Arantza Igartua, Beatriz Lanseros, M<sup>a</sup> Pilar Azkune, Arantza Zaldúa, M<sup>a</sup> Pilar Iparragirre, M<sup>a</sup> Jesús Iturbe, M<sup>a</sup> Carmen Quevedo, Beatriz Gutiérrez, Gregoria Callejo, Inés Soraluze, Arantza Askasibar.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775

**Koordinatzailea:** Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldúa.

**Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga  
**Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>  
**Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



# Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel:722599

## Sasietak zaborren biogasa elektrizitatea sortzeko erabiliko du

Sasieta Mankomunitatea eta EVEk lortutako akordioaren ondoren, Sasietako zaborrek sortzen duten biogasaz elektrizitatea sortzeaz arduratuko den Biosasieta izeneko sozietatea sortu da. Egun zabortegi honetara Goierrri, Urola Garaia eta Deba Garaiko 30 herritatik 42.000 tona zabor heltzen da eta kopuru hau hazi egingo da, Tolosaldeko zaborrak ere bertara eramatea aurrikusia baitago. Sasietako arduradunek aspalditik zuten zabor honetaz baliatuz elektrizitatea sortzeko asmoa eta EVErekin lortutako akordioaren ondoren aurten hasiko dira horretarako behar diren lanak egiten.

Lan hauen eta zaborraren fermentazioak sortzen duen gas metanoaz elektrizitatea sortzeko beharrezkoa den motoreak 105 milioitako gastua suposatuko dute eta hasieratik jada energia sortuko da. 2003. urtean bigarren motore bat martxan jarriko da eta honek elektrizitate ekoizpena bikoiztuko du. Orduan 9.000 biztanle ingururen beharrak asetzeko adina elektrizitate sortuko da. Biosasietakoek Iberdrolakoekin hitz egin dute, eurei salduko baitiete ekoiztutako elektrizitatea, eta lehen urtean 25 milioitako salmenta gordina lortuko dutela kalkulatu dute.

Biosasietaren aurkezpen ofiziala Beasaingo udaletxean izan zen eta bertan Eusko Jaurlaritzako Industria eta



Josu Jon Imaz eta Jon Berbel akordioa sinatzen.

Argazkia: Goierritarra

Merkataritza sailburua den Josu Jon Imaz; Nekazaritzako foru diputatua den Jon Mikel Murua; Jon Berbel, Sasieta Mankomunitateko presidentea; EVEko hainbat zuzendari eta Sasieta Mankomunitatea osatzen duten udaletako ordezkariak izan ziren.

Josu Jon Imazen ustez “energi iturri berriztagarrien aldeko apustua egin beharra dago, oso garrantzitsuak baitira, bai ekonomikoki, bai ingurugiroari dagokionez. Biosasieta honen guztiaren adibi-

de garbia da.” EVEko arduradunen esanetan, berriz, Biosasietak hainbat abantaila ekarriko ditu: zabortegiaren gasa kentzen zaionez, lur mugimenduak eta negutegi-efektua saihesten dira eta gainera energia berriztagarria den biogasa elektrizitatea sortzen da.

Aurkezpen lanen ondoren, elkarre berriaren arduradunek eta Mankomunitateko udal ordezkariak Biosasietaren eraketa idatzia sinatuz aurkezpen ekitaldiari amaiera eman zioten.

### Zelai-Arizti zinemako lanak

aurrera doaz eta maiatzean lehen faseko lanak bukatzea espero da. Egun hauetan teilatua eraikitzen ari dira eta igeltsaritza lanek lehen zatiari amaiera emango diote. Bigarren fasea aurrera eramateko proiektua aurkeztu duen enpresa bakarra orain lanean ari den Necso denez, Udalak euren proiektua onartzen badu, lanek gelditu gabe aurrera jarraituko dute. Necsok aurkeztu duen txostenaren arabera, bigarren epeko lanak 169 milioi kostako dira eta 9 hilabetetan amaituko dira. Bigarren epe honetan elektrizitate, iturgintza, zurgintza, soinu isolamendu... lanak egingo dira eta eserlekuak jartzeko armailak prestatuko dira. Bigarren epe hau amaitu ondoren zinemari behar bezalako ekipamendua emango zaio eta herriaren zerbitzurako prest egongo da. 330 eserleku izango dituen zinemaren eraikitze eta egokitzapen lanak 2001. urtean amaituak egotea espero da.

### Iñaki Beitia Mendi Ibilaldia

datorren maiatzaren 14ean ospatuko da. Aurtengoa IV.a izango da eta antolatzaileek deia luzatu nahi diete Iñaki gogoan duten guztiei ibilaldian bertan edo antolaketan lanetan parte har dezaten.

### El Salvadorgo parrokia

berriaren lehen harria apirilaren lehen jarri zen eta urte eta erdian lanak amaiturik egotea espero da. Eraikinak tenplua, parrokiako lokalak eta apaiz etxea izango ditu eta lanaren kostua 145 milioitakoa izango da.

### Merkatu txikia

Garaialde Lizeoko ikasleek hilabete honetako 14, 15 eta 16 egunetan ikas-bidairako dirulaguntzaren bat jasotzeko merkatu txikia jarriko dute Zumarragako enparantzian. Bertan denetik aurkitu ahal izango duzue prezio honean. Hurbildu zaitezte!

### “Zumarragako Hiria” pilota finalak

jokatu ziren martxoaren 24an Beloki pilotalekuan. Pilotalekuan jende ugari bildu zen arren, finalek ez zuten maila nabarmena izan eta irabazleek partidua hasi eta berehala lortu zuten lasai jokatu ahal izateko adina abantaila. 4 t'erdiko txapelketako irabazlea Mundiñano izan zen eta binakako finalean Castellanos eta Martínez gailendu ziren. Etxabe eibartarrak 3 tantu soilik egin ahal izan zizkion Mundiñanori eta hau izango zen behar bada Beloki pilotalekuan nafarraren jokoaz gozatzeko izan genuen azken aukera, bere maila dela eta laster ikusi baitezakegu profesional mailan. Binakako finalean ere irabazleek oso erraz lortu zuten garaipena, Castellanos eta Martínezek 22 eta 6 irabazi baitzieten Urretabizkaia I eta Beginori. Pilotazaleen hurrengo zita Herrien Arteko Pilota Txapelketa izango da, ea bi herri-tako ordezkariak lan ona egiten duten.

## Goierri K.E.aren txirrindularitza sailak

denboraldi berriaren aurkezpena egin du eta aurtengoaren berrikuntza nagusia bi udalen laguntza jaso duela da. Bestalde zikloturismo sailarekin batera lan egin behar dute eta gazteen elkarlana bultzatu nahi da denboraldian zehar hainbat jokoren antolaketaren bidez eta ekainaren 17an bizikleta eguna ospatuz. Aurten txirrindularitza eskola Hierros Hiercorrek babestuko du eta kadete mailako taldeak Construcciones Metálicas Urretxuk. Hegialde Auto eta Legautok lasterketetara joateko autoak jarriko dituzte.

## Xake txapelketa

Martxoan eta apirilean Goierri K.E.ko xake sailak antolatutako txapelketa jokatu da Eire tabernan. Txapelketan eskualdeko 20 jokalaria aritu dira oso giro onean eta Urola Garaian ere xake zaletasuna dagoela argi geratu da. Txapelketa ospatzen ari zen egunetan, partaideetako bat bihotzekoak jota hil zen eta antolatzaileek omenaldi xume batean txapelketako irabazlearen saria familiakoei eman zieten.



Bidea nondik joango den erakusten duen maketa Zumarragako udaletxean dago ikusgai.

## 1.400 milioiko dirulaguntza Ormaiztegi eta Zumarraga arteko bide berria egiten hasteko

Antton Jaime Garraio eta Errepide diputatuak bilera bat izan zuten Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako alkateekin Beasain-Durangoren inguruko azken erabakien berri emateko. EH eta EA-EAJk Foru Aldundiko aurrekontuak aurrera ateratzeko lortutako akordioaren ondoren, aurtengo aurrekontuko 1.400 milioi pezeta Ormaiztegi eta Zumarraga bitarteko errepide berria egiteko erabiliko dira.

Hala ere, Antton Jaimek esan zuenez, tamaina honetako proiektuak aurrera ateratzeko bete behar den bide burokratikoa dela eta, lanen hastea atzeratu egingo da. Ondorioz, errepide berria 2002. urte amaieran edo 2003.aren hasieran erabiltzen hasiko garela uste da.

Ormaiztegi eta Zumarraga arteko errepide berriak oraingo autobidearekin errotonda baino gorago bat egingo du eta

Alegiko atzealdetik igaroko da. Iberdrolako zentralaren parean errepide zaharraren beste aldera pasako da eta honekin lotune bat izango du. Alde honetatik jarraituko du, Gabiriako lurretan eta RENFEko trenbidearen gainetik, Eitzako gainean egungo Zumarragako saihegunearekin elkartu arte.

Hemendik hiru eta lau urte barruko aurrekontuetan ere Beasain-Durangorako lan berriak egiteko dirua bideratu behar da Foru Aldundiko aurrekontuetan. Fase honetan, kilometro bateko luzeraz Beasain eta Bergara arteko tunel luzeena izango dena, Eitza eta Aparicio auzoen bitartekoa, egingo da. Hemen Legazpi eta Zumarragara doazen lotune berria egingo da eta errepide berriak, zaharrekiko paraleloan, Deskargarako bidea hartuko du, non 600 metrotako beste tunel bat egingo den.

## MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31  
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak  
Depilazioak  
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaioa, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20  
URRETXU



alejandro albisua

kirol gaiak

Soraluze 6  
☎ 72 52 22  
ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza



Bainurako altzariak  
Gas instalazioak  
Berogailuak  
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67  
20700 URRETXU

# Apirileko agenda

## -Haur eta gazteentzako ekintzak

### -Larunbatetan festara

Haurrentzako eskulanak, kaskazuriren eskutik. Larunbatero (apirilak 22a eta 29a ezik) Urretxuko Kultur Etxean, dohainik, 11etatik 1ak arte.

### -Haurrentzako zinea

-Apirilaren 9an: BOSTAK: Bosten dibertsioa / Bostak karabanen.

-Apirilaren 16an: "Eguzkiaren erregea" Igandeetan, arratsaldeko 4,30etan, Pagoeta Antzokian. Sarrera 100 pezeta.

### -Alkoholik gabeko diskoteka

Igandero Golden dantzalekuan arratsaldeko 5etatik gaueko 9etara. 12 eta 18 urte bitarteko gazteentzat. Sarrera: 400 pta, kontsumizioa barne.

### -Aste Santuko oporretan, zatoz gurekin!

6-12 urte bitartekoentzat ekintzak. Izen-ematea, dohainik, apirilaren 14a arte Urretxuko Kultur Etxean eta Zumarragako Udaletxean.

#### -Apirilaren 25ean:

Goizeko 10etan haurrentzako jolasak Iparragirre plazan. Arratsaldeko 4etan, eskulan tailerra Euskadi enparantzan.

#### -Apirilaren 26an:

Goizeko 10etan Kultur Etxean bildu Santa Barbarara igo eta bertan eguna igarotzeko.

#### -Apirilaren 27an:

Goizeko 10etan, herri kirol jolasak Iparragirre plazan. Arratsaldeko 4etan, eskulan tailerra Euskadi enparantzan.

#### -Apirilaren 28an:

Goizeko 10etan Euskadi enparantzan arratsalderako mozorroaren prestaketa. Arratsaldeko 4etan, Pagoeta Antzokian, dantzaldia.

## -Bazko Asteko ekintzak

### -Bazkoa bigarreneko jai Antiguano.

-16:30etan: Ume jolasak eta txokolatada.  
-18etan: Udal Batzarreak, ohiturari jarraituz, Antiguako elizara joan eta Andre Mariari ikustaldia egingo dio.

-18:30etan: Herri kirol saioa.

-Ondoren, erromeria txistulariek eta Zumarragako trikitixak alaituta.

Oharra: eguraldi txarra eginez gero, Euskadi enparantzan egingo dira ekintza guztiak.

## -Musika

### -Irrintzi dantza taldearen jaialdia

Apirilaren 8an, 22:30etan, Beloki pilotalekuan.

### -Secundino Esnaola Musika Eskola

Apirilaren 14an Bergarako Musika Eskolako ikasleen kontzertua, Legazpi Dorretxean, arratsaldeko 6,30etan.

### -IV. Antigua Abesbatzak lehiaketa

Apirilaren 8an, 16:30etan, Angeluko "Adixkideak Abesbatza" eta Pontevedrako "Camerata Vivace".  
Apirilaren 9an, 11:30etan, Valladolideko "Coral Tensilibia", Angeluko "Orekan Abesbatza", Errioxako "Orfeón Virgen de Nieva" eta Iruñako "Taller de Música Sine Nomine".

## -Erakusketak

### -Itarte Etxean

Apirilaren 9ra bitartean, Arte Ederretako ikasleek margo akrilikoz egindako lanak.

### -Juan de Lizarazu erakusgelan

Maria Isabel Arangurenaren esmalte erakusketa. Apirilaren 6tik 16ra bitartean.

## -Kirolak

-Goiherri K.E.k antolatuta irteera apirilaren 29ko asteburuan: Belagoa: Santa Engrazi - Lakora (1.877m) - Belagoako aterpetxea - Anie (2.505m) - Lecun Billare (2.318m) - Lescun.

## -Lehiaketak

-Bertso paper, komiki, pintura eta argazki lehiaketarako oinarriak Zumarragako udaletxean eta Urretxuko Kultur Etxean.

-Santa Isabel Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa. Aurkezteko epea: maiatzaren 12a arte.



Araitz Padrón Plazaola

## Justu justuan baina zeozerk salba gaitzake

Nolabaiteko sinismen gorakorra duenak, badaki gizakiak, jaiotzen den lehen segundutik, patua finkatua daukala; aldiz minimozko lasaitasun psikologikoaren bila dabilenak bizitzan suertatu zaizkion gorabeherak berak bilatuak direla baieztatuko du, inongo hirugarren pertsona edo indarraren laguntza ukatuaz. Bakoitza ezarri dadila komeni zaion aldean, ez dut inongo interesik eztabaida sortzeko.

Patua gora patua behera, Rukungiri barrutiko Kanungu herrian gertaturiko "taldeko buruaz beste egitea"k errealitate penagarri bat ezarri du ene begien aurrean: gizakiak norbait edo zerbaiten laguntzarekin soilik jo dezake aurrera. Bizirik mantendu nahia.

**“Egun berri bat iristen den uneoro buruan ditugun ia 100 bilioi neuronak buelta eta biraka hasten dira gauza bakar baten bila: ARRAZOIA”**

Guztiok ez dugu irtenbidea sekta "mirakulutsu" horietan aurkituko, errespetu falta ikaragarria izango litzateke errezeta moduan horiek ezartzen dituzten ideia sakrillikoak gurutziltzatea (zer dela eta mundua amaitu nahiaren desio sutsu hori? Kapitulu berri batentzat gogoetak.) Argi mota hori artifizia da. Erorkorra.

Egun berri bat iristen den uneoro buruan ditugun ia 100 bilioi neuronak (guztia hobekiago joango litzaiguke soilik dozenaerdiren menpe

bageundeke) buelta eta biraka hasten dira gauza bakar baten bila: ARRAZOIA. Era batekoa edo bestekoa. Baina horren esanahirik gabe akabo: Zergatia edo bidea. Zentzua topatzen ez badiogu korapilatsuagoa suertatu daitekeen sinonimoarekin konformatu behar; argudio, adimen, argumentu... Bizia.

Burugabekeriaren aurka eza-gutza. Ezagutu, ezagutu... ez dut gizakia baino izaki kirtenagorik ezagutuko (neu ere zaku berean barneratua, noski).

Miseria emozional baten itzalarerekin mugitzen gara. Bizitzak erakutsi ahala, besteen eskuetan dei egiten dugu, arnasestuka gure odolarekin, gure amets prefabrikatuekin, garena-biluztasunarekin.

Milaka zatitan apurtu dezakegu gorputza eta horietatik handiena tristura ezin eramanezko batek itotzen duela ikusiko dugu, iraunkorki. Baina oraingoan inork ez du esaten jakin zer dela eta halako izate simplea.

“Gau txarra pasatu al duzu? Non dugu irribarra, udaberrian gaude!!!!” esan zion

bertan lerro luzea osatzen genuenetako edozeinek supermerkatuko kutzazainari. Eta badirudi guztion buruhausteetan baiezkortasun arduratsu batek tango bat dantzatu zuela oinazearen muga honetan tregua barkakoi bat josiaz. Beraz, zer iruditzen zaizue atsedendalditso bat hartzen badugu estutasuna jario eta lehortzen ipintzen dugun bitartean, beste jantzi simple bat baillutzan, burdin-hari txepelean.

Hainbeste alda dezake gizakiak ahots gardenaren amorruez?



**RENEDO argazkiak**

**Jauntxoak • Bataioak • Ezkontzak**

Labeaga 52-54 F URRETXU

☎ 725682

☎ 722292



**MAPFRE**

**Aseguru etxea**

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA

☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

**PLAZAOLA**  
**ITURGINTZA**

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA

943 72 13 70



**ARKUPE**  
**TABERNA**



**ALTZARIAK**


**MERKA-UROLA**

Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28


**URRETXU**

# Zintzo-Mintzoren merkataritza euskalduntzeko planaren lehen fruituak

DATUAK JATETXEZ-JATETXE



ALDAGAIEN BILAKAERA



1. Irudia eta errotulazioa.
2. Pertsonalaren hizkuntz egokitzapena.
3. Hizkuntza erabiltzeko irizpideak.
4. Kanpo erabilpenerako dokumentazioa.
5. Kanpo komunikazioa.
6. Barne komunikazioa.

Azken hamar hilabete hauetan herriko hainbat jatetxek Zintzo-Mintzorekin batera egindako lanaren fruituak agertzeko garaia iritsi da. Neurketa kuantitatiboa Indexplá programa informatikoaren bidez egin da. Programa hau erakunde normalizazio planen neurketarako apropos sortua da. Dagoeneko hiru neurketa egin dira: bata, hasieran, 99ko maiatzan; bestea, 99ko azaroan; eta azkena 2000ko martxoan. Neurketa hauek jatetxeek batazbeste %31,42ko euskalduntze maila dutela adierazten dute, hau da, orain dela hilabete batzuk baino %7,71 gehiago.

Kontuan hartu behar da goiera hau ez dela esparru denetan uniformea izan. Igoera handiena hizkuntza erabiltzeko irizpideek eta kanpo erabilpenerako dokumentazioak izan dute. Hasierako zifra txikia izanik, idazkiak euskaraz sortzeko irizpidea indartzeak eragin du portzentaiaren goiera. Baina oraindik ere ahozkotasunari dagokion irizpide kolektibo gabezia

nabarmena da. Hala ere, aldagai garrantzitsua da hau gainontzekoak honen arabera mugituko baitira. Ahozko harrera euskeraz egiteko irizpidea eta edozein idazki gutxienez euskeraz sortzeko irizpidea indartzen diren neurrian erakundearen paisaia linguistikoa (errotulu, musika..etab) edo jatetxeko kideen euskararen ahozko erabilera haundituko da.

Aipatutakoaren erakusgarri nabaria kanpo erabilpenerako dokumentazioa eta kanpo komunikazioa aldagaien goiera da. Hau da, faktura, aurrekontua, membreteta, karta eta halakoak euskeratzea. Ahozko komunikazioak, berriz, ez du idatziaz adinako igoerarik izan. Aldagai hau goian aipatutako irizpideen erakusgarri nabaria da.

Hurrengo, jatetxeen irudi eta errotulazioari dagokien aldaketak daude. Ordutegiaren errotulua, oharrak, "komunikazio" edo "pribatua" bezalako errotuluek ari gara. Eta azken postuetan, barne komu-


nikazioa eta pertsonalaren hizkuntz egokitzapena daude. Lehenengo kasuan, barne dokumentuak euskaraz erabiltzen hasi dira, (esaterako, plateren eskariak apuntatzeko komandak). Pertsonalaren hizkuntz egokitzapenaren portzentaiaren goiera barne-tegi eta euskaltegietan ari diren jatetxeetako kideei dagokie.

Laburbilduz, jatetxe hauetan batez ere maila idatzian haunditu da euskeraren erabilera. Maila kualitatiboan, jarrera aldaketa soma daiteke. Neurri batean, normalkuntza plana zerbait arrotza izatetik, probetxu propiorako den zerbait izatera pasa da euskara negozioaren hobekuntzarako elementu bat den neurrian.

Oraindik badago zereginik, eta hortan jarraituko dugu jatetxeetakoek eta Zintzo Mintzok baina esperientzia hau zabaltzeko ordua iritsi da eta orainartekoekin batera beste etxe batzuekin lanean hasteko garaia iritsi da. Horren berri hurrengo alean izango duzue.



## Zer deritzozu tabernetako edarien salneurri igoerari?



**Gaspar Gezalaga**

Gaizki iruditzen zait, nire ustez garagardoa garestiegi dago eta gainera leku guztietan salneurri berean saltzen ez dutenez, nahastea besterik ez dute lortzen.



**Mikel Aramendi**

Tabernariak hortik bizi direnez, salneurriak igotzea ulertzen dut. Baina garagardoaren salneurria bakarrik igotzea gaizki iruditzen zait.



**Imanol Garmendia**

Garagardoaren salneurria kamareroen botea betetzeko igo dutela iruditzen zait. Arazoa bestean soldatak igoerarik ez izana da.



**Egoitz Etxaniz**

Garagardoa garestiegi dagoela iruditzen zait. Hala ere, horregatik ez diogu edateari utziko. Oso gaizki iruditzen zait gehien edaten dugunaren salneurria igotzea beti.

**BIONA**

**AROTEGIA**

**Altzariak neurrira**

☎ eta faxa: 72 02 55  
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

**kutxa**

*fundazioa  
fundación*

**edurne**


**JANTZIDENDA**

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA

**Lanbetea**

- Dietetika  
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



**BILINTX  
LIBURUDENDA**

**EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.**

-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224

Fax: 422363 20003 DONOSTIA

-Fermín Calbetón, 30

Telf. 422696 20003 DONOSTIA

-República Argentina, 4 Telf. 626817

Fax: 626817 20300 IRUN

-Arostegieta, z/g. Telf. 673533

Fax:673500 20400 TOLOSA

-Ibargarai, 12 Telf. 764050

Fax: 764050 20570 BERGARA



**Keros**

**Enmarkatzeak**  
Arte ederrak  
Dekorazioa  
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

# Joxe Urteaga

## “Lehen soinujole gutxi eta dantzari asko geunden, orain alderantziz”



Argazkia: Gara

Joxe Urteagak ondo merezitako omenaldia jaso zuen martxoaren 19an Azpeitiko kiroldegian EITBk antolatutako saioan. Bertsolari, trikitilari eta dantzari ezberdinek eskainitako saioaren ondoren, Joxe oholtzara igo zen biloba Garikoitzekin jendearen txalo zaparrada artean eta bere bi pieza eskaini ondoren, “Agur jaunak” jotzeari ekin bezain pronto jendea zutik jarri zuen. Omenaldiaren biharamunean berarekin izan ginenean, denei eskerrak eman beharrean zegoela eta omenaldian oso pozik baina urduri egon zela aitortu zigun.

Joxe Urteaga 14 urterekin hasi zen soinua jotzen, duela ia 60 urte. Osabak sartu zuen soinuaren munduan, afizioa zuela ikusten baitzuen. Osabarekin aritzen zen Joxe Migel Ormazabal Zegamako semeak erakutsi zion soinua jotzen RENFErentzat egiten zituen lanak amaitzen zituenean eta horretarako Joxe gaztea Kaminpetik gora zegoen Axaundi baserrira joaten zen gehienetan oinez eta aukera zuenean bizikletaz eta gau iluna zela jada jaisten zen herrira. Artean oso gaztea zelarik Pasaian egin zuen jendurreko estreinaldia eta soldaduskara ere soi-

nua bizkarrean zuela joan zen. Ofizialek antolatzen zituzten festetan soinua jotzeko deitzen zioten eta honi esker, soinua jotzen aritu ondorengo egunean soldaduskako lanak egiteaz libratzen zen.

### “Soinua Euskal Herrira iritsi aurretik, neskek panderoa jotzen zutela egiten ziren erromeriak”

Joxeren esanetan garai hartan askoz ere jende gutxiagok jotzen zuen soinua, oso jende gutxi baitzuen herrian bertan soinua jotzen ikasteko aukera. Berak zorte hau izan zuen eta plaza ezberdinetan Joxe Migel Ormazabalekin eta osabarekin joz are gehiago ikasteko aukera izan zuen. Izan ere, hiruek Euskal Herriko plaza gehienak zapaldu zituzten soinua soinean zutela. Dena den, Joxe soinua jotzen hasi aurretik osabak bide luzea egin zuen jada trikitixa munduan Zumarragako Trikitixa

izenpean. Lehenengo urteak Itsasakortarekin eman zituen eta disko batzuk ere atera zituzten, baina Itsasakorta Ameriketara joan zen eta bueltatuko zela esaten zuen arren, bertan hil zen.

Itsasakorta joan ondoren, Meliton tabernako Karlos Egigurenekin eta aipatutako Joxe Migel Ormazabalekin ibili zen.

Osabak utzi zuenean Joxe Urteagak eta anaia Migelek hartu zuten errelebua Zumarragako Trikitixan eta elkarrekin urte mordoxka bat eman dituzte. Frankismo garaian ez omen zen batere xamurra trikitixa jotzea, jendeak gustuen entzuten zituen abesti asko eta asko debekatuak baitzeuden eta goardia zibila izaten baitzuten atzetik. Orduetik hona gauzak asko aldatu dira trikitixa munduan eta Joxek esaldi batez laburtzen du aldaketa: “lehen soinujole gutxi eta dantzari asko geunden, orain, berriz, soinujole asko eta dantzari gutxi”. Garai hartan emakume asko mezetatik atera eta alpagatak eroatera joaten omen ziren gero dantza egiteko, “dantzazaletasun izugarria zegoen eta nire amonak esan zidanez, oraindik trikitixa Euskal Herrira heldu gabe zenean, erromerietan neskek panderoa txandaka jotzen zuten gainontzekoek

dantza egin zezaten. Esaten dutenez, inguru hauetan soinua jotzen hasi zen lehena Ormaiztegiko Itsua izan zen.” Orain dantza taldeetako gazteak aritzen omen dira batez ere dantzan, baina lehen “edozein lekutara joanda ere, dantzariak lur azpitik ere azaltzen ziren”.

Garai hartan hain trikitilari gutxi zeudela ikusita, nesken artean arrakasta izango zutela suposa daiteke, baina trikitilariak ez omen zuten gehiegi ligatzen: “Ligatu? Arratsalde eta iluntze guztia soinua jotzen pasatzen genuen eta ondoren soinua bizkarrean hartu eta etxera ligatzera! Iburreta tabernan, adibidez, astero bodak izaten ziren eta lauetatik hamarrak arte gelditu gabe jotzen genuen”. Neska kontuan behar bada ez, baina Zumarragako Trikitixak soinu txikiaren alorrean berebiziko arrakasta eta garrantzia izan du. Honen isla dira orainarte grabatutako diskoak. Joxe eta anaia Migelek pare bat single grabatu ondoren, Goiko Txabolan diska bat grabatu zuten, “Zumarragako Txistulariekin, Paxkual, Sanpedro eta abarrekin grabatu genuen atari zabalean Herriko Gogoia disketxearekin eta diska polita atera zen, beranduago ere beste diskaren bat grabatu genuen”.



Argazkia: Gara

Disketako kanten hitzak euskaraz eta gazteleraz ziren, disketxeak hala eskatuta. Batzuk lehenago osabak sortutakoak ziren eta besteak Joxek berak eginak. Hauen artean ospe berezia lortu zuenetako bat Lutxi eta Mariatz hitz egiten zuena izan zen, baina hain ezagunak egin ziren bi emakume hauek ez ziren sekula esistitu Joxeren esanetan. Lutxi eta Mariarekin batera purua ere Urteaga anaien ahotan izan da urte hauetan guztietan: “hasieran

zigarroak erretzen nituen, baina gero puruetara pasa nintzen. Soinua jotzen ari ginela purua erretzen genuen denborapasa eta urte hauetan guztietan makina bat erreko nituen, erretako puruak bata bestearen atzetik jarriz gero Zumarragatik Paris arteko bidea joan-etorreran betetzeko adina”.

Puruak makina bat erre ditu Joxek baina 82an ostu zioten arte soinu bakarra erabili zuen. “Ezkontza batean lapurtu zidaten eta pena ikaragarria hartu nuen, osabak gerra garaian ekarritakoa baitzen jakizu nondik, aita zein zen jakiterik ez zegoela esaten nuen nik. Lapurretaren ondoren polizia komisaldegian parte eman eta paper piloa firmatu behar izan nuen, baina ez zuen ezertarako balio izan”.

Bizitza osoa trikitixa jotzen igaro ondoren, duela urte pare bat plazetara joateari utzi zion, baina oraindik ere noizean behin biloba Garikoitzekin jotzen jarraitzen du. Garikoitz bi urterekin jada panderoa jotzen hasi eta bere kabuz ikasi zuen, aitona Joxeren gozamenerako eta ondoren soinua jotzen ere erakutsi zion. Orduetik hona aitonarekin soilik aritu da eta oraindik ere familiarreko bazkari eta afariak alaitzen jarraitzen dute. Urte askotan jarraitu dezatela!

Joxe Urteaga, bere maixua izan zen Joxe Migel Ormazabalekin.



**Z**ER MODUZ IBILI ZINETEN INAU-  
TERIETAN? **B**EREHALA PASA ZIREN  
JAI EGUNAK, EZTA? **L**ASAI, **A**STE  
**S**ANTUKO OPORRAK GAINEAN  
DITUGU JADA ETA.! **E**A OPORRETA-  
KO EGUN HORIETAN EGURALDI ONA  
EGITEN DUEN ETA KIROLA EGITEKO  
AUKERA DUZUEN. **L**ASTIMA BERE-  
HALA EKAINEN AZTERKETARAKO  
IKASTEN HASI BEHARRA...



## 6. maila (mutilak)

La Salle B	Ikastola D
32	32
Nadic	Mikel
Iñigo	Ibai
Oskar	Iker
Aritz	Aitor C.
Arkaitz	Erik
Igor	Aitor I.
Jon	Victor
Josu	Xabi
David	Iñaki
	Gregorio
	Julen

## 6. maila (neskak)

La Salle B	Ikastola B
12	44
Kristina	Lidia
Ioana	Maria
Vanesa	Goretti
Mailo	Ane
Maitane	Naroa
Naiara	Neike

## 5. maila (mutilak)

La Salle	Gainzuri A
25	26
Ander	Ivan O.
Jon Andoni	Ivan P.
Julen	Unai D.
Pablo	Unai B.
Ander N.	Gorka F.
Asier H.	Gorka G.
Asier S.	Ander
Alex	Ruben
Adrian	Josu
Mikel	Iñaki
Erik	Imanol

## 6. maila (neskak)

Domingo Agirre	Gainzuri
33	18
Susana	Garazi
Melodi	Jesika
Leire	Mirian
Miren	Ane
Marta	Tamara
Miren C.	Aroa
Monika	Amaia
Nerea	Tania
Mirian	Mirian
Clara	
Sara	

## “Inauterietan egunero mozorrotu ginen eta primeran pasa genuen”



Hilabete honetan Gainzuri ikastetxean 6. mailan ikasten ari diren zenbait mutilekin hitz egin dugu. Beraiek Ruben Poza, Ander Askasibar, Eneko Galarza, Jon Aztiria, Beñat Mujika, Joseba Manteca, Xabier Jorge, Iban Ondo, Andoni Biain eta Driss Ouafa dira.

Orainarte beste kirol batzuetan ere aritu badira ere, azken aste hauetan Urolak antolatzen duen futbol txapelketan dihardute buru belarri. Izan ere, futbola da gehien atsegin duten kirola eta iaz txapelketa honetan bigarren gelditu zirenez, aurten oso gogor entrenatzen ari dira txapelketa irabaztea lortu ahal izateko.

Txapelketa honetan inguruko herriotako eskoletako talde ezberdinek jokatzen dute eta hobekien aritzen direnek Urola Futbol

Taldearen eskolan sartzeko aukera dute. Gainzuriko laguntalde honetako zenbait kide jada eskola honetan daude eta Urolarekin Gipuzkoako talde ezberdinen aurka jokatu eta herri ezberdinak ezagutzeko aukera dute.

Futbolearen jokatzeaz gain, lagunekin ibiltzea ere asko atsegin dute eta inauterietan egunero atera ziren mozorrotuta. Inauteri igandean denak ume bihurritz mozorroturik atera ziren. Orain Aste Santuko oporren zain daude, eskolara gustura joaten diren arren, oporretan are gusturago ibiltzen baitira.

Izan ere, esan digutenez, Ingurune izeneko ikasgaia ez dute asko atsegin, baina honetan ere futbolearen bezain kementsu aritu behar dira ikasturtea gainditu nahi badute!

## CHIARA

**Etixerako lentzeria  
Oparitarako gaiak**

Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18

**Madaia plazoletan  
20700 URRET XU**

## TABERNA



Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19

**ZUMARRAGA**



Belardenda, dieta eta errejimen  
elikadura

Labeaga 31 ☎ 943722780

**URRET XU**

*foto luz*  
*Argazkilaria*

Legazpi, 5  
☎ 72 11 55  
Zumarraga

Labeaga, 43  
☎ 72 16 81  
Urretxu

Kale nagusia, 5  
☎ 73 04 19  
Legazpi

\* ZURE ESTUDIOA \*

**GOSARIETAN BEREZITASUNA  
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU**



**OSINALDE  
KRUASANDEGIA  
TABERNA**

S. Esnaola, 26 ☎ 943720306  
**ZUMARRAGA**



## URRET XU

**OPTIKA-GABINETE AUDIOPROTESIKOA**

Graduazioa-Audiometriak-Audiofonoen moldaketa-Begiko tentsioaren hartzea

Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 09 07 Iparragirre, 1 ☎ eta faxa 943 72 59 68



Hilaren 15ean egingo den perkusio kalejirarako prestaketa duela aste batzuk hasi zen.

# Ttipi-Ttapa euskararen bidea eginez

Apirilaren 13tik apirilaren 16ra bitartean Ttipi-Ttapa izena hartu duen herriko gazte taldeak antolaturik euskara hutsez burutuko diren hainbat ekintza izango ditugu gure bi herriotan. Hala nola, hitzaldiak, kale antzerkia, bertso afaria, kontzertua, etab.

Ttipi-Ttapa taldearen sorreraren eragileak Eñaut Urbizu eta Iñigo De la Piedad eitzarrak izan ziren. Aspalditik zebiltzan gure bi herriotan euskararen aldeko zenbait ekintza antolatzeko asmoz eta iazko Urretxuko jaien ondoren euren ideiak aurrera eramatea erabaki zuten. Horretarako beste zenbait lagunekin hitz egin zuten eta ordutik hona egitaraua antolatu eta ekintza ezberdinak aurrera ateratzen aritu dira.

Hasierako asmoa ekintza nagusi moduan kontzertu erraldoi bat antolatzea zen, baina honelako kontzertu bat antolatzeko dauden oztopo ezberdinak ikusirik, antolaketan eta partaidetzan ahalik eta herriko gazte gehien bilduko zituzten ekintza ezberdinak antolatzea erabaki zuten.

Honen helburua apirilean ospatuko diren ekintzen bidez herriko gazte koadrila ezberdinen arteko harreman berriak sortzea da eta euskararen inguruko ekintzek bultzaturiko harremanak izango direnez, harreman berri hauek euskara hutsez izatea bultzatu nahi da. Euren esanetan, koadrila barneko hizkuntza ohiturak aldatzea zail xamarra da, baina harreman berri hauetan lehen hitza euskaraz ematen bada aurrerantzean ere euskara hutsean mantenduko direla uste dute.

Ttipi-Ttapakoen ustez bi herriotan antolatzen diren ekintza ezberdinek ez diote euskararen erabilerrari behar adina garrantzia ematen eta berauetan erdal giroa nagusitzen da. Apirilean burutuko diren ekintza hauetan euskarazko hartu emana nagusitzea lortzen badute eta honek urtean zehar iraungo balu helburua lortuzat emango lukete.

Horretarako lehen pausuak eman dituzte jada, apirileko ekintzen barne ospatuko den perkusio kalejirarako entsaiuetan 30-40 gazte biltzen baitira ostiralero Pagoeta Antzokian eta euren artean euskaraz aritzen baitira. Dena den, Ttipi-Ttapakoen esanetan emaitzak urtean zehar ikusi beharko dira eta honen arabera datozen urteetan antzeko ekintzekin jarraitu edo berriak antolatzearen beharra ikusi.

Aurtengo egitaraua ondoko orrialdean duzue ikusgai.

# EGITARAUA

## APIRILAK 13 OSTEGUNA

NON	ORDUA	
Urretxuko Kultur Etxean	19:30	Hitzaldia: Jose Luis Otamendi.

## APIRILAK 14 OSTIRALA

NON	ORDUA	
Zumarragako enparantzan	20:00	Kale antzerkia: Hortzmuga
Balentiña sagardotegian	21:30	Bertso Afaria (2.900 pta.) J.M. Irazu eta Unai Agirre

## APIRILAK 15 LARUNBATA

NON	ORDUA	
Gernikako Arbola plazan	12:00	Sagardo dastaketa
Zumarragako enparantzan	13:30	Gastronomi lehiaketa: babarrunak
	14:30	Herri bazkaria
	Ondoren	Herri kirolen desafioa: sokatira, kaskara joku, txapel jaurtiketa
		Perkusio kalejira
Ederrena pilotalekuan	22:00	Kontzertua: Utikan, Noraezean

## APIRILAK 16 IGANDEA

NON	ORDUA	
Zumarragako enparantzan	17:30	Pailazoak: Kiki, Koko, Moko eta Flax

## MURUA

### Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.  
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU  
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B  
Tel: 943 72 16 63  
ZUMARRAGA



**HAR GOR**  
ILEAPAINDEGI MIXTOA  
Nekolalde, 3 baxua  
☎ 943 72 44 42



**HARGOR**  
Artisautza - arropak - opariak  
Nekolalde, 1  
☎ 943 72 56 58



**BAPRI**  
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak


Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13  
ZUMARRAGA



Legazpi, 5  
☎ 943 726274  
ZUMARRAGA



**Ferretería BRAVO, S.L.**




INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIK - BURNIZKO TRESNERIA  
Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA

# Xabier Gabilondo

Lehendakariordearen prentsa arduraduna

## “Politikarien prentsa bulegoek ez ditugu komunikabideekiko uste bezain estrategia makiabeliakoak”

Xabier Gabilondo zumarragarra duela 11 urte Leioan kazetaritza ikasketak bukatu eta betidanik gustuko izan duen politika alorra jorratzen hasi zen Herri Irratian. Bertan 7 urte eman ondoren, azkeneko lauetan Mariano Ferrerren saio arrakastatsuan, Radio Euskadin eta El Mundo egunkarian aritu zen. Bere lana zela eta, Ibarretxe Lehendakariaren lantaldeko jendearekin harreman ona egin zuen. 98ko urriko hauteskundeen ondoren Jaurlaritza berria osatu zenean, Lehendakariordea eta Ogasun eta Administrazio Publiko kontseilaria den Idoia Zenarruzabeitiaren prentsa arduradun izateko deitu zioten. Orduetik, galderak egitetik erantzunak ematera pasa da.



### Zein da zure eguneroko lana?

Egunero heldu eta berehala egunkariak irakurtzeari ekiten diot, 8 bat egunkari. Beraietan nire arloko gaiak nola lantzen dituzten begiratzen dut eta prentsa dossier bat prestatzen dut lehendakariordeak eta bere taldeko jendeak prentsan zer datorren jakin dezaten. Bestalde, lehendakariordearen agenda publikoa daramat eta bere agerpen publiko guztiak kontrolatzen ditut: agerpenaren ezaugarriak, berarengandik zer espero duten, diskurtsoa prestatu... Parlamentuan interpelazio bat egiten badiote, nondik-nora joko duten jakinda, erantzuna prestatzen dugu eta komunikabideek ere nondik-nora joko duten nik hobeto dakidanez, zer eta nola esatea komeni den prestatzen dut. Horretaz gain, komunikabideekin duen erlazio guztia nigan pasatzen da eta politikariek euren lanean jarraitu behar dutenez eta nigan konfidan-

tza osoa dutenez, askotan nik erantzuten dut lehendakariordearen partez. Idoiarekin elkarrizketa bat eskatzen badute, komeni zaigun ikusten dugu, eta hala bada kazetariari elkarrizketaren gidoi bat eskatzen diegu eta zer esan prestatzen dugu. Elkarrizketa hauetan ni ere izaten naiz eta batzuetan, kazetari eta medio batzuetaz gehiegi fidatzen ez garenez, grabatu ere egiten ditugu.

### Nola ikusten da kazetaritza “beste alde-tik”?

Oso ezberdin, orain ni eustorma naizenez, kazetariekin eta politikariekindudan harremana guztiz aldatu da. Orain konprenitzen dut informazio iturriek edo politikariek zergatik ezin dituzten zenbait gauza kontatu. Bestalde, zenbait kazetarik tontakeria asko esan eta idazten ditugula ere ikusi dut. Gauza asko sekulako friboli-

dadez kontaktzen dira eta ez bakarrik medioek dituzten interesengatik. Niretzat esperientzia hau oso polita izaten ari da, lehen ez bainituen ezagutzen politika munduaren barruan gauzak nolakoak ziren. Egunen batean kazetaritzara bueltatzen banaiz hobe jakingo dut, adibidez, noiz izan daitekeen une egokia norbaiti deitu eta informazioa lortzeko. Bestalde, prentsa arduradun lanean oso gaitetik ezagutzen nituen gauzak jorratzen ari naiz eta Ogasun eta Administrazio Publiko sailean ari naizenez, egunen batean ekonomia alorreko kazetaria izateko prest nengoke.

### Nola erabakitzen duzue zer zabaldu daitekeen komunikabideetan eta zer ez?

Hori, nire kasuan, lehendakariordearen ekipoaren artean erabakitzen dugu. Gai konkretuen ezagutza adituek dute eta nire eginbeharra hiritarrei zer, zergatik eta



nola helarazi behar zaien erabakitzea da. Komunikabideen dinamika erotzekoa da, espektakuluaren gizartean bizi gara, eta komunikabideek gureganako duten informazio eskaera asegaitza da. Eguneroko lanak erakusten digu nola jokatu behar dugun, gai bat ikutzea komeni zaigun eta noraino hel gaitezkeen. Kazetariok askotan pentsatzen dugu politikarien prentsa bulegoek komunikabideekiko oso estrategia neurtuak eta makiabelikoak dituztela, baina egunerokotasunak agintzen du eta uste baino inprobisazio handiagoa dago. Kazetari onek ondo lan egiten dute eta askotan espero ez ditugun berriak zabaltzen dituzte, hauei aurre egiteko ere inprobisazioa beharrezkoa da. Bestalde, badakigu komunikabide bakoitza non dagoen, beraingandik zer espero dezakegun eta nola erantzun.

## “Komunikabide asko arduraz aritu beharrean interes politiko hutsez ari dira”

### Kazetari eta komunikabide guztiekin harreman berdina al duzue?

Kazetari batek deitzen dizunean oso argi duzu zein mediorentzat lan egiten duen eta nola pentsatzen duen. Batzuen jarrera ikusita, ez gaude eurei ezer eskaini eta euren jokoan erortzeko prest. Aurreko legealdietan Eginekiko egon zen jarrerarekin ez nago batere ados, baina egun dagoen beto bakarra ABCrekikoa da. Informazio publikoa eskatzen badigute ez dugu eskaintzeko eragozpenik, baina behin lehendakariordearekin elkarriketa bat eskatu ziguten eta ezetz esan nien. Kritika onargarria da, baina beraingandik egurra eta gezurrak besterik jasotzen ez ditugunez, nahiago dut ez agertzea.

### Kazetari lanetan urte askotan ibilia zarenez, ezagunengatik presio berezia jasotzen al duzu?

Konfidantza duzun pertsona batekin ari zarenez normala da, baina ezagunek ere errazago ulertzen dute nire egoera. Askoz errazagoa egiten zait ezagun bati ezin diodala ezer kontatu esatea. Bestalde, normalagoa ere bada ezagunei gainontzekoei esaten ez zaiena kontatzea, baina

badakite euren medioan zabaltzen badute nire konfidantza galdu dutela. Bestalde, kazetarietako harremanez ari garenez, informazioaren norabidea bikoitza dela esan beharra dut. Nik eurei informazioa ematen diet, baina kazetariak niretzat ere informazio iturri dira. Izan ere, nik Jaurlaritza barruko berriak ezagutzen ditut, baina beraiek alderdi ezberdinetan gertatzen ari den berri eskaini baitiezadakete. Azkenaldi honetan, adibidez, Arabako PSEn Buesaren lekua hartzeko istilu handia dagoela jakin dut kazetarien bidez. Beharbada ez da egi osoa izango, edo ez da hainbesterako izango, baina orain dudan lanpostuan ez nuke hau jakiterik izango kazetarien laguntzarik gabe; ezin bainaiteke, noski, alderdietara informaziobila joan.



### Prensa arduraduna izateko kazetaria izatea beharrezkoa al da?

Bai, duela urte batzuk arte “espektakuluaren gizartea” ez zegoen hain garatua eta abokatu batek edo filosofia ikasi zuen batek lan hau egitea zuen, baina egun gehienok kazetariak gara. Izan ere kazetarien dinamika eta politikarietara duten harremana oso berezia eta konplexua da eta ondo ezagutu beharra dago beraiekin lan egiteko. Prensa arduradunen arloa profesionalizatu egin da.

### Dena den, egun politikariak komunikabideetan agertzeko ondo prestatuak egongo dira...

Denetarik dago, batzuk oso pres-

taturik daude eta beste batzuk ez hainbeste. Batzuk, adibidez, beti komunikabideetan agertzeko prest daude eta zenbaitzuk, tamalez, politika egunkarietan jartzen duenaren arabera egiten dute. Beste batzuk, ordea, euren proiektu eta jarrera komunikabideei hainbesteko arreta jarri gabe egiten dute eta nire ustez askoz ere zuzenagoa da. Egia da kazetaritza 4. boterea dela, baina erabaki politikoetan ez du eraginik izan behar. Zenbait politikariek zenbait komunikabideri entzun nahi dutena esaten diete, nahiz eta guztiz egia ez den zerbaite esaten ari direla jakin, eta hau azken bi urteotan gehiegitan ikusi dugu. Komunikabideek erresposabilitate handia dute eta askotan arduraz jokatu beharrean interes politikoz soilik jokatzeko dute.

Nire ustez herri honetan jokatzeko ari diren paperaz erreflexionatu beharra dute. Suetenak iraun duen epean garrantzi gehiago eman diote, adibidez, zenbait koktel botatzeari hilik gabe egoteari baino.

### Zeintzuk dira prentsa arduradun izatearen alde on eta txarrak?

Oinak zure lanak eragina duela ikustea da: komunikabideek esan nahi zenuena ulertu eta ondo tratatu dutela eta proiektuak aurrera ateratzen direla ikustea da. Txarrenak, ordea, barneko klabeak ezaguturik zenbait komunikabide hiritarrak engainatzen saiatzen direla ikustea da eta egunkariaren salmenta, adibidez, Euskal Herriko gizartearen soziologiarekin bat ez

datorrela kontutan izanik hau oso kaltegarria da. Honen arrazoia abertzaleok komunikabide alorrean transizioaz geroztik gauzak gaizki egin izana da eta hausnarketa sakon bat egin beharra dugu, bestela jai dugu. Abertzale munduaren zatiketa zela eta, partidu egunkariak atera ziren eta hiritar normala ez dago alderdi bati hain atxekia. Gainontzeko egunkariak, ordea, bere linea editoriala, guztiz legitimoa dena, askoz ere hobeto mozorrotu dute. Abertzaleok ez genuen guztiok elkartuko gintuen egunkari ireki eta plurala sortzen asmatu.

### **Pasa diren hauteskundeetan komunikabideek eragin berezia izan al dute?**

Komunikabideek eragina badute eta azken bi urteotan zenbait komunikabidek izan duten jarrerak izango zuen ziur. Hala ere, uste dena baino eragin gutxiago dutela uste dut, emaitzek ez baitiete guztiz arrazoia ematen. Abertzalegoaren estankamendu bat ikusten da, baina PPK hauteskundeak irabazi dituela dirudien arren, alderdi espainolek azken lau urteotan 60.000 botu soilik irabazi dituzte. Iturgaitz lehendakari izan baino lehen ni New York Timeseko zuzendaria izango naiz. Elkarte Autonomoan argazkia argia da. Hala ere Araban eta Nafarroan gertatzen ari denari buruz abertzaleok hausnartu beharra dugu. 20 urte eman ditugu Nafarroan burua atera nahian eta Araba galdu dugu. 93tik hona PP eta PSOEn artean eman den polarizazioak eragina izan duela egia da, baina biolentziaren erabilerak ere eragin handia izan du hauteskundeetan; abertzalegoaren kalterako izan baita eta hau ezin du inork ukatu. Indarkeriak espainiarren harrotasuna areagotzea ekarri du eta abertzaleok defentsiban gaude.

### **Zer egin beharko litzateke egoera hau gainditzeko?**

Abertzaleok, eta bereziki batzuek, gaizki zer egin dugun hausnartu beharra dugu. Bestalde, Aznar jaunak historia liburueta su-etena galtzera bota zuena bezala pasa nahi duen ikusi beharko du. Komunikabide askok ez diote honi garrantzirik ematen, baina su-etena haustera jokatu du. Ez dakit orain gehiengo absolutuarekin erabakiak lasaia hartuko dituen, kataluniarrek ez baitute jada guri ematen digutena eskatzeko adina indar. Dena den, eman dituen lehen pausuak ez dira oso itxaropentsuak, Lizarra pakearekin bateragaitza dela esaten jarraitzen baitu, nahiz eta gezurra dela dakien. Dena den, Euskal Herriko hainbat hiritar ere iritzi berdinekoak dira eta irtenbidea lortzeko saiakera berriak egitea beste irtenbiderik ez dut ikusten. Hori bai, elkarrizketaren aldeko apustua ez da atzera bota behar, ez baitago beste irtenbiderik. Bestalde, isolamendu politikek ez dute zentzurik.

## **“Espainiar alderdiak Euskal Herrian gehiengoa izatera itxaroten ari dira hitz egiten hasteko”**

### **Nondik-nora jo beharko luke abertzaleen estrategiak?**

Abertzaleon munduan elkarlana nahi badugu, biolentzia soberan dago. Su-etena izan denean pausu handiagoak edo txikiagoak eman dira, mahai batean elkar-

turik nahi duguna leporatu diezaiokegu batak besteari, baina biolentzia badago elkarlana eta gure helburuak lortzea ezinezkoa izango da. Bestalde, helburuak argi edukitzea ondo dago, baina errealitatea ere kontuan izan behar dugu. Espainolek gu espainol sentitzera behartu ezin gaituzten bezala, guk ezin ditugu euskaldun sentitzen ez direnak euskaldun sentitzera behartu. Errealitatearen arabeko estrategia eraikitzen ez badugu, ezinezkoa izango zaigu helburuak lortzea. Baliteke ere estrategia zuzenak emaitza onak ez ematea, eta honetan EHrekin guztiz ados nago gutxiengo politikoa izateko prest daudela diotenean. Espainolei ez diet sekula hala-korik entzun.

### **Ba al dugu Irlandarregandik zer ikasi?**

Hasieran errepublikarrek ez zuten gobernu autonomoa onartzen bi Irlanden arteko zatiketa ekarriko zuela uste zutelako. Baina, nire ustez, gizartearen ezaugarriez jabetu ondoren onartu egin dute eta orain britaniarrak dira aitzakien bidez oztupoak jartzen ari direnak. Nire ustez hemen neurri batean ezker abertzalea ez da honetaz jabetu. Irlandarrek egin duten bezala, epe luzeko estrategia bat antolatu behar genuke eta han bezala bi aldeok amore eman beharko dugu akordio batera iristeko. Hori bai, Irlandan lortu dutena eta hemen ez, eta asko kostatuko zaigu espainolek onartzea, autodeterminazio eskubidea da. Espainolen estrategia ez da ETaren aurkako estrategia, abertzaleon ideien zampaketa nahi bat baizik. Abertzalegoa gutxiengoa izatea nahi dute eta orduan sartuko dira elkarrizketa prozesu batean. Orain ez dute nahi ahultasun egoera batean daudelako eta herriaren hitzak arrazoia emango ez liekeen beldur direlako.

## **Xabier Gabilondoren ikuspuntutik:**

**Juan Jose Ibarretxe:** Sekulakoa, momentu honetan herri honek behar duen lehendakaria da. Pena da strategi politiko-mediatico batzuk direla eta, hiritar asko honetaz ez konturatzea. Merezi ez duten lehendakaria dutela esan daiteke.

**Idoia Zenarruzabeitia:** Idoia ere sekulakoa da. Zailagoa egiten zait berari buruz hitz egitea, harreman pertsonal estua baitugu. Politikagintzarako emakume oso kapaza eta goitik beherako abertzalea da. Nahiz eta nire nagusia izan, oso pertsona jatorra da.

**Josu Jon Imaz:** Txikitatik ezagutzen dut eta oso ondo dakit politikagintzan ibiltzeko oso prestatua dagoela: mundua eta errealitate ezberdinak oso ondo ezagutzen ditu. Josu Jon ere primerakoa da.

**Carlos Iturgaitz:** Herri honek bizi duen egoera honetan, politikagintzan lan egiteko maila ez duen pertsona.

**Aitor Gabilondo:** Zer nahi duzu nire anaiatz esatea! Momentu honetan Zumarragarako alkate ona da, pertsona langilea, ondratua eta prestatua baita.

**Mariano Ferrer:** Komunikazioaren munstro bat. Berekin elkarlanean eguneroko-egunero ia 4 urte eman nituen. Kazetaritzako iritzi arloan ezagutzen dudana prestatuenetikoa da. Gauzak oso argi ditu eta lehendakariaren esan dudana bezala, primerakoa da.

**Pedro J. Ramírez:** Tipo azkarra dela iruditzen zait. Kazetari sena du, baina urte batzutatik hona iparra galdu du. Itsututa dago aukera politiko baten alde lan egiten eta horrek komunikabide baten bitartez kazetaritza egin beharrean politika egitea suposatzen du. GAL auzia azaleratzeagatik sozialistek Diario 16etik bota zutenetik, antifelipismo lanetan PPren aldeko lanetan baino itsutuago dabilela esango nuke. Dena den, ezerezetik egunkari bat sortu eta eraman duen lekura eramateak meritua du.



**Abel**, ikasi al duzu katekesian Itun Zaharreko zure izenki-deari gertatu zitiña? Lasai, horiek istorio zaharrak dira eta!  
**Zorionak!**



**Garazi**, zure abizena ez da ba Lizarra izango? Hala bada demokrazia ikastaroren batera joan beharko zara lehenbaitlehen...  
**Zorionak!**



**Karlos**, ea egunen batetaren bazkariren bat prestatzen diguzun. Urte guztian kapela buruan duzula, zerbait prestatzen ikasiko zenuen!  
**Zorionak!**



**Nahikari**, ea arreta handiagoa jartzen dizun argazkilaritari!  
**Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Agustin**, solariumera joaten al zara eguzkia hartzerako? Azkenaldi honetan izan dugun giroarekin ez zinen ba belztuko!  
**Zorionak!**



**Gloria**, hori da hori izen ponpoxoa duzuna, zure izena duen abesti bat ere konposatu zuten...  
**Zorionak!**



**Karmele**, ondo pasa urtebetetze eguna eta segi ezazu orainarte bezain irrifartsu!  
**Zorionak!**



**Nekane**, ez zenuen ba magisteritza ikasiko? Hori da hori "bat eta bi andereño Maribi" itxura duzuna!  
**Zorionak!**



**Aitor**, atzealdean laino guzti horiek dituzula aingerua dirudizu, motel! Hemendik urte batzutura gurasoak ez dira ez iritzi berekoak izango!  
**Zorionak!**



Hona hemen **Idoia**, Santa Lutzi egunean behor onenaren sariduna aurkezten duenean bezain irrifartsu.  
**Zorionak!**



**Maddi, Zorionak** ondo pasa urtebetetze eguna eta segi orainarte bezain irrifartsu eta pertxenta!



**Pablo**, non utzi duzu zure Pedro kuttuna? Ziur oraingo honetan ere istiluren batean sartuta ibiliko dela.  
**Zorionak** eta ondo pasa!



**Alicia**, ez zara horren lotsatia izan behar neska! Altxa burua eta begiratu kamerari beldurrik gabe!  
**Zorionak!**



**Iñaki**, hori duk hori maitemindu aurpegia! Baina orain neska duala eta ez hitzak ikasketak ahaztu!  
**Zorionak!**



**Maria Angeles**, zure irrifarrea ikusirik urtebetete gehiago izateko zuzan eragin kaltegarririk izango ez duenaren ustea dugu. Hala bedi!  
**Zorionak!**



**Rosa** ez al zizuten txikitari esan behatzak ez zirela entxufean sartu behar? Tira, denboraldi batean ez duzu gomina erosi beharrik izango behintzat...  
**Zorionak!**



**Antton**, txapela buruan eta dantza egin Antioko tablaturan.  
**Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Itziar**, dirudizun bezain maitagarria al zara? Ez dakigu ba...  
**Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



**Maria Antonia**, guateketako garaia aspaldi pasa ziren! Ea hurrengoan argazki "modernoago" bat ematen diguzun.  
**Zorionak!**



**Rosa Mari** hainbeste gustatzen zaion kotxea erosi beharko diozue Amaiari, lortu arte ez da isilduko eta!  
**Zorionak!**



**Beni**, vidi, vinci... Zuk ere erromatarek bezala egiten al duzu? Ez duzu zorte makala!  
**Zorionak!**



**Jabier**, ondo pasa urtebetetze eguna eta segi orainarte bezain txintxo eta jator.  
**Zorionak!**



**Maria Dolores**, martxoan lehenengoz etorri zinen pegatinak jartzera eta jada ezingo duzu ihes egin!  
**Zorionak!**



**Xabier**, alaitu ezazu aurpegia motel! Ziur zure urtebetetze egunaren eskatu duzun oparia jasoko duzula.  
**Zorionak** eta ondo pasa!



**Carmen**, Aintzanek eskaini zuen dantza ikastarora joan al zinen? Santa Barbaran eta Antion ikasitakoa erakutsi beharko duzu!  
**Zorionak!**




**Joanes**, zuk bai tradizio handiko izen euskaldun peto-petoa! Urtebetetze eguna zure gazteluan ospatu behar al duzu?  
**Zorionak!**



**Margarita**, emakume liraina eta polita.  
**Zorionak** eta urtebetetze eguna familiakoekin primeran pasa dezazula opa dizugu.



**Yanay**, gurasoek argazkirako gupogupao jarri ondoren, irrifarrerik onena eskaini behar...  
**Zorionak!**



**Dabid**, argazkilaria ikaratu nahi al zenuen? Hori da hori psikopata aurpegia jarri zeniona! Ez dakigu nola asmatu zuen argazkia ateratzen...  
**Zorionak!**



**Jon**, ez dirudi argazkian ateratzeko gogo haundirik zenuenik...  
**Zorionak** eta ea txokolatadan alaiago ikusten zaitugun.



**Mari Jose**, hori da hori alaitasuna! Loteria tokatu al zaitzu? Badaezpada ere zure etxera joango gara bankuetakoekin batera!  
**Zorionak!**



**Kaixo Aiala**: biziki maitate zaitugunok, **zorionak** eta urte askotarako ematea gatzozkizu.



**Edurne**, txintxo aurpegia jarri zenuen arren, argazkilaria burua ia erditik zaitu zizun!  
**Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



**Jon Iñaki**, perfil ona eskaini nahi izan al zenuen argazkilaritari? Tira, tira... guri ez zaigu ba horrenbestera iruditzen...  
**Zorionak!**



**Martina** poxpolina, **zorionak** eta segi orainarte bezain alai, irrifarrea ez da sekula galdu behar eta!



**Felix**, alaitu ezak aurpegi hori motel! Errealzaleoi partiduen ondoren gelditzen zaitugun aurpegi berarekin atera haiz argazkian!  
**Zorionak!**



**Eli**, zu ere iragarkikoa bezala behatza tintatan jarri eta harrapatzen duzun guztia zikintzen ari al zara?  
**Zorionak!**



**Jose**, Urtauren ezkutuko anaia al haiz?  
**Zorionak** eta ez hadi muturrjoka hasi gustuko oparia jasotzen ez baduk!



**Mikel** joan zen hilean hitaz ahaztu bagintuan ere, ez hadi gurekin hasarratu. "Rectificar es de sabios" diote eta arazoia dute.  
**Zorionak!**



**Nekane**, ondo pasa urtebetetze eguna Marigorringo, Txirritx eta Takolorekin.  
**Zorionak!**



**Erik, Erik...** zure aurpegia ikusita ez dugu zalantzarik: oraingoan ere bihurrikeriren bat egin duzu.  
**Zorionak!**




**Joxepi**, alaitu ezazu aurpegi hori emakumea! Pentsa aurten urtebetete gehiagoko esperientzia duzula.  
**Zorionak!**



**Milaka** parranda egin dituzu zuk azkenaldi honetan, baina pegatinak jartzen ez zaitugu ez ikusi! Argi ibili isuna jarriko dizugu eta!  
**Zorionak!**



**Unai**, oso gustukoa ez duzun oparia jasotzen baduzu ere, ondo pasa urtebetetze eguna eta segi orain arte bezain irrifartsu.  
**Zorionak!**



Erostarbe eta De Luz San Franciscoko frontoian beraiekin batera joan ziren pilotariekin eta bertako Euskal Etxeko lagunekin.

**Nolatan joan zarete EE.BB.etar pilotan jokatzera?**

**De Luz:** Duela 6 urte lehenengoz joan nintzen eta San Franciscoko Euskal Etxean egun nire emaztea dena ezagutu nuen. Orduan Apeztegia, Artola, Alonso eta Urienekin joan nintzen eta gurekin oso gustura gelditu ziren. Egun Euskal Etxe hartako presidentea nire koinatua da eta bertara esku-pilotan jokatzera joan diren batzuk oso serio aritzen ez direnez, gu gonbidatzea erabaki zuen. Ez dugu beste batzuek izan dezaketen maila, baina badakite gure lana serio hartuko dugula eta gurekin harreman ona izango dutela.

**Erostarbe:** Bertan parrandan ibiltzea oso erraza da, baina euskal pilotariak bertara eramateko egiten duten gastua eta gureganako erakusten duten adeitasunari erantzun beharra dago. Pilotan jokatzeari gain, bertako jendeak guretzako beste ekintza batzuk ere antolatu zituen eta irudi ona eman beharra dago.

## EE.BB.etan ere pilotan

**Jabier Erostarbe eta Jabier De Luz pelotariak otsaila amaieran astebete pasa zuten EE.BB.etan pilotan jokatzeko, Asier Urien eta Anton Begoñes bizkaitarrekin eta Natxo Ortego madrildarrarekin batera, San Franciscoko Euskal Etxeak gonbidaturik. De Luzek duela 6 urte ere bertan jokatzeko aukera izan zuen eta egun bere emaztea den Jeanette Ganboa ezagutu zuen. Jeanette euskaldun jatorriko amerikarra dugu eta Jabier De Luzekin ezkondu zenetik gure artean bizi da. Bere anaia San Franciscoko Euskal Etxeko presidentea da eta aurten Erostarbe eta De Luz gonbidatu dituzte Euskal Etxearen urteurrena ospatzeko antolatzen duten festara. EE.BB.etatik bueltan, bi pelotariekin eta Jeanettekin hitz egin dugu.**

**Urtero antolatzen al dituzte pilota partiduak?**

Bai, San Franciscoko Euskal Etxearen urteurrena ospatzeko egiten dute. Pilotariez gain, iparraldeko musika taldeak, bertsolariak, Alaitz eta Maider... ere gonbidatu dituzte. Gabonetan Euskitze, Lizaso eta Peñagarikano bertan izan ziren, Chinoko Euskal Etxean. Aurten Asier Urien eta Anton Begoñes bizkaitarrekin eta Natxo Ortego madrildarrarekin joan gara eta bost partidu jokatu ditugu: hiru San Franciscon eta bi Chinon.

**Nondik-nora ibili zarete?**

Ez dugu atsedean handirik izan, konpromisu ugari baike-nituen. San Francisco ezagutzeko aukera izan genuen eta bazkari-afariak Euskal Etxean egiten genituen. Larunbata eta igandean Euskal Etxearen urteurren jaia ospatu zen eta bazkari herrikoia egin zen frontoian bertan partiduak jokatu ondoren. 400 pertsona inguru bildu ginen bazkarian,

EE.BB.etako leku ezberdinetako euskaldunak hurbildu baitziren.

### EE.BB.etan bizi zareten euskaldunen artean harreman estua al duzue?

**Jeanette:** Bai, Californiako hiruzpalau herritan euskaldun asko gaude eta gure artean harreman estua dugu. Herri hauetan Euskal Etxeak daude eta bertara joan ziren euskaldun gehienon seme-alabek euskaraz hitz egiten dute. Gurasoek txikitatit euskal ohiturak erakutsi dizkigute eta bizitza osoan Euskal Etxera joan gara. Nire ama amerikarra da eta guk ez dugu euskaraz hitz egiten, baina nire osaba-izebak euskaldunak dira eta nire lehengusuek euskaraz hitz egiten dute. San Francisco hiri handi bat denez euskaldunok ez dugu hain harreman estua, asteburuetan soilik biltzen baikara. Baina Chino, adibidez, herri bat da, bertako euskaldunak abeltzainak dira eta eguneroko hartu-emanan dute.

**D.L.:** Oso deigarria da EE.BB.etan jaiotako jende gazteak bere gurasoen euskalkian mintzatzen entzutea. Bizkaia kostaldeko jatorriak dutenak, adibidez, Lekeitio edo Bermeon bizi direnak bezain jator mintzatzen dira bizkaieraz.

### “San Franciscoko euskaldunen artean ere zenbaitzuk pilotan jokatzen dute eta txapelketa Panamerikarra antolatu behar dute”

### Nola ikusten duzue Euskal Herria EE.BB.etako euskaldunek?

**J:** 18 urte nituela etorri nintzen lehenengoz eta familiakoen etxera joan nintzen. Gutxigorabehera espero nuena aurkitu nuen: festa ugari, herri txikiak... Hori bai, ez nuen uste hiriak hain handiak zirenik. Izan ere nire aita Sunbillakoa zen eta bertako argazkiak ikusiak nituenez, herri guztiak txikiak izatea espero nuen.

**D.L.:** Hemen askoz ere pilatuago bizi gara, hango lurak askoz ere zabalagoak direnez leku gehiago dago.

### Ameriketara bizi diren euskaldunak hemegoon parekoak al dira?

**E.:** Bai, han bizi arren asko jan eta edateko ohiturari eusten diote. Bestalde, euskaldun nortasunari eusten

saiatzen dira eta han bizi arren, euskaldunak direla diote, ez EE.BB.arrak, frantziarrak edo espainiarrak.

### EE.BB.etako euskaldunen artean pilota zaletasunik ikusi al duzue?

**D.L.:** Zaletasuna egon badago, baina bultzada txiki bat behar dute. Euskaldunak dauden herrietan badaude bakoitzean pilotan aritzen diren hamar bat lagun, baina lagunduko dien jendea behar dute. Pilotan seriooki jokatzea bultzatuko lieken arrazoiren bat beharko lukete. Mundialetara ere joaten dira eta datorren urtean Joku Panamerikarrak antolatuko ditu San Franciscoko Euskal Etxeak.

**E.:** Aurrera egiteko eta hobetzeko txapelketak beharrezkoak dira eta bertan ez dituzte txapelketak.

**D.L.:** Hori bai, euskaldunak dauden lekuetan frontoiak daude: trinketeak, plaza librekoak, ezker pareta dutenak...

### Zer da EE.BB.etan gehien txunditu zaituztena?

**E:** Bertako hedaturak batez ere. Han dena izugarri handia da: kotxeak, distantziak...

**D.L.:** Beraientzat edozein gauzatarako ordu laurdenez kotxez joan beharra normala da. Han kotxea ez duenak, jai du. Beraientzat normala da lanera joateko ordubate behar izatea.

**J:** Egia da, bai, hiri erdian bizi ez bazara egunero kotxea erabili beharra duzula. Bestalde, jende askok astebururo hiruzpalau ordutako bidaia egiten du. Han bideak zabalagoak dira, kotxeak potentekoak eta jendea ohituta dago gainera.

**E.:** San Franciscotik Las Vegasera joateko nik eraman nuen mikrobusa eta aspertu ere egin nintzen: izan ere bihurgune gutxi daude eta gainera autoek kanbio automatikoa dutenez... Bestalde, Estatu Batuarren ohitura batek nire arreta




Jeanette euskaldun jatorriko EE.BB.arra da.

Bertara heltzen ziren euskaldunak heldu eta denbora gutxira frontoia egiten zuten bertan pilotan jokatu ahal izateko eta garai hartan egindako bat ikusteko aukera ere izan genuen. Garai batean zesta puntak arrakasta izan zuen Miami, Tampa, Tijuana... baina pixkanaka frontoiak ixten joan dira. Las Vegasen ere, frontoia zena egun kasinoa da. Zumarragako bat ere bertara joan zen pilotan jokatzerara, Garbiñe tintorerikoen familiakoa, eta gero han gelditu zen bizitzen. Duela urte batzuk, bertara joan nintzen batean, berarekin egon nintzen hitz egiten.

piztu zuen: denari izotza botatzen zioten. Gu ginen edariak izotzik gabe hartu nahi genuen bakarrak eta azken egunetan jada izotzik gabe ateratzen zizkiguten. Izotzarekin “arazo” txiki hau izan badugu ere, gurekin primeran portatu direla esan beharra dugu.

**D.L.:** Jaten ere primeran eman digute. Gurekin joan den batek hamburgesa pila jateko asmoa zuen eta probatzeko aukerarik ere ez du izan. Bestalde, uneoro gure esanetara zeuden eta leku batetik bestera eraman gaituzte bertako inguruak eza-gutu ginitzan.



## Beñat Urretabizkaia

Ikastolan, Lizeoan eta La Sallen ikasi ondoren, elektrikari lanetan ibili zen eta azken bi urteotan etxez etxe dabil galdarak konpontzen. Hala ere, Beñat herrian ezaguna bada, txikitik bere anaiarekin batera, pilotan aritu delako da. 13 urte zituenetik Zumarragako taldearekin aritu da Herri Arteko Pilota Txapelketa jokatzeko eta urte hauetan guztietan makina bat partidu jokatzeko gain, txapelketa pilo bat irabazi ditu anaiarekin batera.

Hainbeste urtetan egun profesional mailan dauden gazte ia guztien aurka arituak dira eta afizionatu mailan sona handia lortu dute Urretabizkaia anaiek.

Beñat nahikoa kezkatua dago pilotak afizionatuak izan duen maila jaitsieragatik. Izan ere, "pilotari asko eta asko profesionaletara pasa dira, batzuk jubentzen zirela, eta afizionatu maila asko jaitsi da. Hori dela eta, geroz eta txapelketa gutxiago antolatzen dira eta duela urte batzuk baino gutxiago ordaintzen zaigu".

### -Zer izan nahi zenuen umetan?

Pilotaria edo futbolaria.

### -Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Kirola egitea.

### -Bizitzeko toki bat?

Zumarraga.

### -Bakarka ala binaka jokatzeko nahiago?

Binaka, nahiz eta sasoiean egonez gero, banaka gustura jokatzeko dudak.

### -Zein duzu pilotaririk gustukoena?

Retegi II. Finena bera izan da.

### -Zure aurka jokatu duten pelotarietatik, nork txunditu zaitu?

Askok, baina Beginok duen kolpea ez diot inori ikusi. Akats asko egiten ditu, baina tantu asko ere bai.

### -Elkoro ala Errasti?

Elkoro. Beti goiko losa bilatzen duenez, bere aurka ari den aurrelariari pilota asko kentzen dizkio.

### -Zein atzelariren aurka gustatuko litzaizuke jokatzeko?

Profesionaletan dagoen edonorekin entrenatzea gustatuko litzaizuke, hainbesteko aldea dagoen ikusi eta ikasteko.

### -Eta zein aurrelariarekin?

Retegi berarekin. Ondo zegoenean berak mugitzen zuen partidua.

### -Irabazitako txapelketetatik, zeinek egin dizu ilusio gehien?

Goñi memorialak.

### -Beloki ala Ederrena?

Beloki nahiago dut, ohituago bainago, baina biak dira frontoi onak.

### -Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Jende famatu interesgarri asko dago, baina inor ez bereziki.

### -Norekin pasatuko zenuke asteburu bat?

Lagun on batekin.

### -Ilehoriak ala beltzaranak?

Bi moietakoak.

### -Egindako azken oparia?

Gogoratu ere ez naiz egiten.

### -Eta jasotakoa?

Gabonetakoak.

### -Data bat?

Uztailak 22, nere urtebetetze eguna.

### -Neska izen bat?

Edozein.

### -Zein egunkari irakurtzen duzu?

Eskuartera heltzen zaidan edozein.

### -Gustuko telebista saioa?

Telebista gutxi ikusten dut, filmak batez ere.

### -Bereziki gorroto duzuna?

Behin "El patito feo" ikusi nuen eta oso txarra iruditu zitzaidan.

### -Liburu bat.

Ez dut asko irakurtzen. Bat asko gustatu zitzaidala gogoratzen naiz, baina ez dut izenburua gogoratzen.

### -Filme bat.

Askok ikusten ditut eta genero guztiak atsegin ditut.

### -Gustuko abestia?

Musika mota guztiak atsegin ditut. Musikari batzuk aipatzekotan, Metallica, Benito Lertxundi eta Asgarth.

### -Soinu bat.

Nik emandakoan pilotak errebotea jotzean ateratzen duena.

### -Usain bat.

Zikinkeriarena ez den edozein.

### -Ukitzeko...

Leuna den edozer.

### -Janari bat.

Arkumea.

### -Ura ala...

Momentuaren arabera.



# UROLA GARAIKO LANBIDE ESKOLA



943 72 54 77

❖ BATXILERGO TEKNOLOGIKOA "D" ereduari  
BACHILLERATO TECNOLÓGICO modelo "A"

❖ GOI MAILAKO ZIKLOAK (2.000 orduko zikloak)

Mekanizazio bidezko produkzioa: bi ikasturte.

Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak: bi ikasturte.


Industri ekipoen mantentimendua: bi ikasturte.

❖ ERDI MAILAKO ZIKLOAK (2.000 orduko zikloak)


Mekanizazioa: bi ikasturte.

Ekipo eta instalazio elektroteknikoak: bi ikasturte.


Ziklo amaieran lan praktikak burutzen dira enpresetan.



## Urola Garaiko Lanbide Eskolan aurki dezakezu



# SUKALDE ERAKUSKETA



Udala enparantza, z/g  
☎ 943 79 00 43  
20500 ARRASATE

Ipeñarrieta, 5  
☎ 943 72 50 75  
20700 URRETXXU